

NIKOREN PUZZLEA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1. blokea

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1. eta 3. blokeak

IRAKURKETA-FITXA: NIKOREN PUZZLEA

Beharko dugun materiala

Nikoren puzzlea ipuina ([esteka](#)).

Garapena

- Irakurri *Nikoren puzzlea* ipuina.
- Bukatutakoan, galdera batzuen bidez, ziurtatu denek ondo ulertu dutela edukia. Inork zalantzarik badu, argitu zalantza horiek.
 - Zergatik egin nahi zuten ihes Bostek eta Seik?
 - Zer esan zieten jolasen gelako puzzle-piezek Bosti eta Seiri, ihes egin zutela jakitean?
 - Zergatik zen arriskutsua gainerako piezentzat Bostek eta Seik ihes egitea?
 - Zer plan bururatu zitzairen Bosti eta Seiri beren kaxara itzuli ahal izateko?
 - Ez al zaizue iruditzen Nikok pixka bat gehiago itxaron behar zuela, puzzleko piezak bota baino lehen? Ez al duzue uste Bost eta Sei aurkitzeko ahalegina egin behar zuela?
 - Ez al zaizue iruditzen puzzleko pieza guztien artean hitz egitea egokiagoa izango zela? Horrela, beharbada, denak elkarrekin joango ziren jolasen gelara.
 - Itzulerako bidea zaila egin zitzairen, batez ere Seiri. Batzuetan zaila izaten da gure ekintzen ondorioak konpontzea, ezta? Askotan, besteen laguntza behar izaten dugu okerrak zuzentzeko. Non ikusi duzue hori ipuinean?
 - Zer esan zieten gainerako puzzle-piezei haiekin elkartzean?
 - Zer ikasi dugu ipuin honekin besteekiko daukagun ardurari dagokionez?

NIKOREN PUZZLEA

Kaixo! Ni Bost naiz. Seik eta nik gure lagunak arriskuan jarri genituenekoa kontatu nahi dizuet.

Nire lagunak eta ni puzzle bateko fitxak gara. Gutako bakoitza zenbaki bat da. Guri esker, umeek zenbakiak ikasten dituzte eta dibertitu egiten dira, eta niri hori ikaragarri gustatzen zait. Baina Nikok, etxeko semeak, gure puzzlea egiten zuen bakoitzean eta gutako bakoitza bere lekuan jartzen zuenean, niri itolarria sartzen zitzaidan. Nire lekua erdialdean dagoenez, ezin izaten nuen mugitu; batzuetan, airerik gabe geratzen nintzen.

Nire lagun Seiri eta niri ikaragarritzko gogoia sartu zitzaigun beste puzzle batzuk ezagutzeko eta etxeko jolasen gela ikusteko. Han ehunka jostailu daudela esan ziguten! Horregatik, ihes egiteko plan bat prestatu genuen.

Behin batean, gaua iristean, denak lo zeuden bitartean, ihes egin genuen. Lasterketetako auto batek esan zigun berak eramango gintuela. Azkenean, iritsi zen gauza berriak ezagutzeko unea!

Autoa ziztu bizian abiatu zen. Jolasen gela etxearen beheko solairuan zegoen; beraz, oso tarte arriskutsu bat igaro behar genuen: eskailerak!

—Heldu ongi! —esan zigun autoak—. Bagoaz!

Hori bai zela dibertigarria! Errusiar mendi batean genbiltzala ematen zuen!

Jolasen gelara iritsi ginenean, gaua zenez, denak lo zeuden. Beraz, bazter batean jarri ginen, eguna argitzeko zain.

Eguzkia leihoetatik sartu zenean, esnatu egin nintzen. Ezin nuen ikusten ari nintzena sinetsi! Denetarik zegoen han: apalak jostailuz beteta, tren-zirkuituak lurrian, bizikletak, mozorroak... Txirrista bat ere bai!

Lehenik eta behin, txirristan behera jaitsi ginen! Mozorroen txokoan, kolore guztietako ileordeak probatzen ibili ginen. Eta, gero, ipuinen apalera joan ginen, abenturetako liburuak irakurtzera.

Leku hura zoragarria zen! Zoriontsu ginen.

Hainbat egun txoko guztiak arakatzen ibili ondoren, puzzleen apalera hurbildu ginen, han zeuden piezak agurtzera.

- Kaixo! Gu Bost eta Sei gara! —esan genien poz-pozik.
—Kaixo! Ezagutzen al dugu elkar? Zer puzzletakoak zarete?
—galdetu ziguten.
—Nikoren logelan dagoen puzzle batekoak. Ez gara gela honetakoak —esan nien.
—Leku berriak ezagutu nahi genituen, jostailu berriak —esan zuen Seik.

Orduan, puzzlerik zaharreneko pieza batek hau esan zigun:

—Baina ez al zarete konturatzen zer astakeria egin duzuen? Zuen lagunak puzzle osatugabeen poltsan egongo dira honezkero, zakarrontzira botatzeko prest!

—Zer poltsa da hori? —galdetu nuen nik.

—Puzzleren bati piezaren bat falta zaiola ikusten dutenean, bota egiten dute. Puzzlean zuek falta zaretela ikusten dutenean, bota egingo dituzte gainerako piezak. Zerbait egin behar duzue zuen lagunak salbatzeko!

Seik eta nik ezin genuen entzuten ari ginena sinetsi. Guk dibertitu besterik ez genuen egin nahi, eta, gure erruagatik, gure lagunak arriskuan zeuden. Konponbideetan pentsatzen hasi ginen.

—Badakit zer egin —esan nuen—. Saiatu behar dugu Nikok gu topa gaitzan; horrela, gure kaxara eramango gaitu. Onena izango da meriendatzeko orduan sukaldean azaltzea, meriendatu ondoren bere logelara igotzen delako, etxeko lanak egitera.

—Bi ordu besterik ez dira falta Niko ikastolatik itzultzeko. Azkar-azkar joan beharko duzue, bidean gelditu gabe; bestela, ez zarete garaiz iritsiko —esan ziguten. Orduan, ziztu bizian abiatu ginen.

Ordubete generaman oinez eta Sei lehertuta zegoen.

—Ezin dut gehiago, Bost; atsedean hartu behar dut.

—Ez daukagu astirik, Sei. Atsedean hartzeko gelditzen bagara, berandu iritsiko gara. Ez kezkatu; nik lagunduko dizut.

Sei bizkarren hartu, eta aurrera jarraitu genuen.

Azkenean, sukaldera iritsi ginen! Nikoren merienda mahai gainean zegoen. Haraino iristea besterik ez zitzaigun falta.

Mahai-zapiari gertatutakoaren berri eman genion eta berak, txintxo-txintxo, puntetako bat luzatu eta mahai gaineraino igotzen lagundu zigun.

Niko, ikastolatik itzultzean, ogitartekoa jaten hasi zen. Guri ez zigun kasurik ere egin. Halako batean, ikusi egin gintuen. Esku

batean txokolate puska bat hartu zuen, beste eskuan gu hartu gintuen, eta logelara igo zen. Garaiz iritsiko ote ginen ala gure lagunak ordurako zakarrontzian egongo ziren?

Logelan sartu ginen. Puzzlea ez zegoen bere lekuan! Ez genuen lortu! Niko, orduan, eskaileretan behera joan zen, eta guk pentsatu genuen zakarrontzira bota behar gintuela, baina, bat-batean, poltsa bat ireki zuen eta handik gure lagunak atera zituen.

Puzzle osatugabeen poltsa famatua zen hura! Gure kaxan sartu gintuen. Sei eta ni pozez zoratzen geunden eta gure lagunak besarkatzen hasi ginen. Barkamena eskatu genien.

—Gure erruz, ia-ia zakarrontzian bukatu duzue. Talde bat osatzen dugu eta arduratsuak izan behar dugu, gure jokabideak kalte egin diezaiekeelako gainerakoei —esan nuen nik.

Egun hartatik aurrera, gure puzzlea egiten zuten bakoitzean, poz-
pozik jartzen ginen eta pieza bakar bat ere ez zen inoiz ihes egiten
saiatu ere egin.

EGIN DEZAGUN GURE PUZZLEA

Beharko dugun materiala

Eranskineko puzzleko fitxen txantiloak.

A garapena

- Eman ikasle bakoitzari puzzleko fitxaren txantilo bat, eta bakoitzak nahi bezala margo eta apain dezala.
- Ikasle bakoitzak bere izena idatz dezala fitxan (idazten ez badakite, bakoitzaren izena idatzi, fitxak banatu baino lehen). Fitxa arduraz eta erantzukizunez margotzeko eskatu, ahalik eta txukunen.

A hausnarketa

- Margotutako piezak hartu, eta puzzle bat egingo dugu gelaren erdian. Puzzle horrek gelakide taldea irudikatuko du. Hauxe esango diegu:

«Puzzle honek gure gela irudikatzen du, zuetako bakoitzak margotutako piezez osatuta dagoelako».

- Zer kolorekoa da puzzlea? Nolakoak dira puzzlearen piezak? Denak berdinak al dira?
- Gustatzen al zaizue puzzlea horrelakoa izatea? Zer iruditzen zaizue gelan guztiok elkarrekiko ezberdinak izatea?
- Zer gertatzen da pieza bat kentzen dugunean? (Kendu puzzleko edozein pieza). Eta zer gertatuko litzateke X (kentzera goazen fitxan idatzita dagoen izena irakurri) gelatik kanporatuko bagenu? Ondo irudituko litzazueke gelatik joatea? Zergatik?
- Zer gertatuko litzateke gure gelako puzzleari piezak kentzen joango bagina, neska-mutil batzuk gurekin pozik ez baleude eta gelatik joan egingo nahi balute?

«Guztiok gara garrantzitsuak, elkarrekiko ezberdinak garelako eta gutako bakoitzak ekarpen txiki bat egiten diolako taldeari».

- Talde honetako kideak garenez, arduratsuak eta erantzuleak izan beharko dugu, taldeko gainerako kideei kalterik ez egiteko. Garrantzitsua da kontuan izatea batzuetan, nahi gabe beharbada, oker jardun dezakegula eta besteei min edo kalte egin diezaikegula, ipuineko puzzleko Bost eta Sei piezek egin zuten bezala. Haiek, besterik gabe, jolasen gela ezagutu nahi zuten; ez ziren konturatu horrela gainerakoei kalte egiten ari zirela. Guri ere askotan gertatzen zaigu hori: zerbait egiten dugu, besteei min edo kalte egiten ari garela jakin gabe.
- Inoiz beste pertsona batzuei kalte egin al diezue, nahi gabe bada ere?

B garapena

- Eman berriro puzzleko piezak, zurian. Marraztu dezatela, nahi duten bezala, beste pertsona batzuei kalte egin dieten kasuren baten adibide bat. Ez dute zertan azalpenik eman.

- Pieza horiekin beste puzzle bat egin eta ikasgelan ondo ikusten den leku baten jarri, bakoitzak bere adibidea ikus dezan eta errepikatu baino lehen pentsatu eta hausnartu dezan, azken batean hori baita arduratsua izatea.

